

HUHEZIk nazioarteko mintegia eratu du aztertzeke zientzia zelan irakasten den

2007/09/12

Irailaren 21ean eta 22an nazioarteko mintegi bat egingo da gurean, Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultateak antolatuta: “**Zientiaren irakaskuntza eskoletan, proiektuetan oinarritutako irakaskuntzaren bidez**”.

Irailaren 21eko jarduera **Eskoriatzan** egingo da, HUHEZIn bertan; 22koa, berriz, **Arantzazun**. Mintegiak helburua du alderatzea Natur Zientziak zelan lantzen diren DBH edo Batxilergoan eta aztertzea zer aukera dauden etapa horietan proiektu bidezko irakaskuntza gauzatzeko.

Sei herrialdetako 33 adituk hartuko dute parte mintegian: Finlandia, Danimarka, Errumania, Txekia, Alemania eta Euskal Herria. Euskal Herrian bi kasu aztertu dira: **Arizmendi** eta **Pasai Lezoko ikastolak**. Xabier Arregi eta Arantxa Irigoras HUHEZIk irakasleek koordinatu dituzte azterketa biak.

